BERGARAKO BIHARGINTZA 98, S.A.
Garapenerako Udal Elkartea

BERGARAKO AGORROSIN KIROLDEGIARI ERANTSITAKO TABERNA-JATETXEAREN USTIAKETA ALOKAIRU BIDEZ ADJUDIKATZEA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZA AGIRI TEKNIKOAK

1.- XEDEA

Bergarako Bihargitza 98, S.A.ren (aurrerantzean Bergarako Bihargitza) jabetzakoa den Bergarako Agorrosin kiroldegiari erantsitako taberna-jatetxearen ustiaketa alokairu bidez adjudikatzea da lizitazio honen xedea.

2.- ADJUDIKAZIO-HARTZAILEAREN BETEBEHARRAK.

A) Bergarako Bihargitzak lagatako instalazioak, lanabesak eta altzariak egoera onean mantentzea, eta emandako ohiko erabilerarako erabiltzea. Bihargintza S.L.k beharrezko ekipamendua emango du, esleipendunak inolako inbertsiorik egin behar izan gabe. Material horri buruzko informazioa behar izanez gero, Kirol Zerbitzuak emango die.

Horrela, kontratua sinatzean ondasunen inbentarioa egingo da adjudikazio-hartzailearen aurrean eta alokairuak irauten duen bitartean aldatu egin ahal izango da, alde bien adostasunarekin.

Edozein arrazoirengatik kontratua amaitzen denean, inbentario berri bat egingo da eta bi inbentarioak bat ez datozela ikusten bada, adjudikazio-hartzaileak falta diren elementuak jarri beharko ditu.

B) Taberna-jatetxeari atxikitako elementu guztiak alokairuaren momentuan zeuden eran zaintzeko behar diren konponketa guztiak bere kontura egitea. Adjudikazio-egunetik hilabete igaro ostean, adjudikazio-hartzailearen esku geratuko dira azaltzen diren konponketak. Horien guztien berri Bergarako Bihargintzari eman beharko dio.

C) Lehiaketaren xedea den ustiapenari lotutako jardueren eta bitarteko materialen gaineko zerga, tasa eta tributu guztiak bere gain hartzea.

D) Publikoaren eta bere agindupeko langileen portaera ona zaintzea; eta erabiltzaileei zerbitzu ona eta egokia eskaintzea.

E) Kontratu honen ondoriozko eskubide eta betebeharrak ez alokatu, zeditu edo eskualdatzea.

F) Taberna-jatetxearen ustiapenetik sortzen diren ohiko gastuak (ura, argindarra, gasa eta abar..), baita indarrean dagoen legediak agindutako errebisioak ere, egin eta ordaintzea. Informazio gisa, jakinarazten da argindarraren gastua 2023. urtean 9.151,3 eurokoa (+BEZa barne) izan dela, eta argindarraren horniketa Bihargitzak berak ematen duela kiroldegiko argindar-transformazio zentroa dagoelako.

G) Lana babesteko legezko xedapenak eta Prebisio eta Gizarte Segurantzakoak betetzea. Bergarako Bihargitzak ez du erantzukizunik izango arau horiek betetzen ez badira, ezta kontratistak lan arloko gainerako arau-hausteren bat egingo balu ere. Halaber, Segurtasun Planean ezarritakoa betetzea eta langileei betearaztea, eta langileak legez eskatzen diren norbera babesteko ekipamenduez hornitzea. Langileek eskura izango dute Agorrosineko Segurtasun Plana, eta kontratuaren exekuzioa hasi

I.F.K.: A - 20 / 656948

baino lehen Agorrosingo auto-babes planaren formakuntza emango die Behargintza S.A-k kontratuari atxikitako langileei.

H) Taberna-jatetxearen ustiapena ez den beste edozein jarduera burutzeko asmoa izanez gero, Bergarako Bihargitzari horretarako baimena eskatu beharko dio. Horren aurrean, desegokia dela edo ez dela komeni iritziz gero, ezezkoa eman ahal izango da eta adjudikazio-hartzaileak ez du inolako kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik izango.

I) Momentu oro instalazioak eta bertan dauden altzari eta tresnak garbi eta higiene egoera onean izatea. Betebehar honek eskatuko du, beste batzuen artean, instalazioak garbi izateko egunero beharrezko garbiketak egitea. Garbitu beharreko instalazioak: sarrera hall-a, taberna-jatetxea (sukaldea, taberna-jatetxeko komunak, jantokia, tabernako biltegiak), kanpoko terraza eta kanpotik sartzeko dauden eskailerak.

J) Taberna-jatetxeko lokalak (jantokia, sukaldea, komunak eta tabernako biltegiak eta kanpoaldeko terraza bakarrik erabil ditzake, eta ezin du beste gune publikorik erabili edo okupatu Bergarako Bihargitzaren baimen idatzirik gabe. Aparteko ekitaldiren bat antolatzeko Bergarako Bihargitzaren baimena behar izango du. Eskaera gutxienez 15 eguneko aurrerapenarekin egin beharko du. Horren aurrean, desegokia dela edo ez dela komeni iritziz gero, ezezkoa eman ahal izango da eta adjudikazio-hartzaileak ez du inolako kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik izango.

K) Hirugarrenei (Bergarako Bihargitza eta bere jabegoa barne) eta gauzei eragindako kalteei erantzutea, taberna-jatetxearen jardueraren edota emandako zerbitzuen ondorio zuzena edo zeharkakoa bada. Horretarako, gutxienez 300.000 euroko kapitala duen erantzukizun zibileko poliza kontratatu beharko du eta urtero prima ordaindu izan dela ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko dio Bergarako Bihargitzari.

L) Aparatu musikalak, makina txanponjaleak, futbolina eta antzeko joku-makinak jartzeko, aurrez Bergarako Bihargitzaren baimena lortu beharko da. Erabaki hori Bergarako Bihargitzarentzat diskrezionala izango da.

M) Garbiketak egiteko behar den materiala jartzea.

N) Hilabete bakoitzeko alokairua hil horretako lehen bost (5) lanegunetan ordaintzea, Bergarako Bihargitzak ezarritako eran. Halaber, hilabete bakoitzeko argindarrari dagokiona ordaindu beharko dio Bergarako Bihargitzari hurrengo hila amaitu baino lehen, Bergarako Bihargitzak ezarritako eran.

O) Instalaziotik azkeneko irteten direnak taberna-jatetxeko langileak badira, ateak itxi eta alarma aktibatzea.

P) Indarrean dagoen legedia betetzea eta, ondorioz, besteak beste, langileek janariak maneiatzeko lizentziak izatea beharrezkoa denean.

Q) Taberna-jatetxean tabakoa erretzen ez uztea, abenduaren 26ko 28/2005 Legea kontuan izanda.

Adjudikazio-hartzaileak lege hau edo beste edozein ez betetzeagatik Bergarako Bihargitzari instalazioen jabe gisa zigorren bat ezarriz gero, errentariari jasanaraziko dio zigorraren kostua. Kasu horretan errentariak hilabete bat izango du Bergarako Bihargitzak eskatu dion diru-kopurua ordaintzeko, eskaera egin dion egunetik aurrera.

S) Uda garaian (gutxi gora-behera ekainaren 15etik irailaren 15era), kontrolatu beharko du tabernatik kanpoko jolas igeritokira dagoen pasabidea, eta ekidin une oro tabernatik erabiltzaileen sarrera kanpoko jolas igeritokira.

T) Uda garaian (gutxi gora-behera ekainaren 15etik irailaren 15era) Agorrosin Ekintza Gunea irekita dagoen egunetan eguneko menua edota plater konbinatuak eskaintzea eguerdian eta iluntzean (hau da, bazkaltzeko eta afaltzeko).

U) Lokal eta instalazioetan inongo erreformarik ez egitea, aurrez Bergarako Bihargitzak idatziz baimendu gabe.

V) Adjudikazio-hartzaileak bere eskaintzan proposatutako jarduerak aurrera eramatea.

X) Bergarako Bihargitzak edota Bergarako Udalak, legeak aginduta edo aipatutako erakundeen erabakiari jarraituz, Agorrosingo instalazioaren funtzionamendu dela eta, martxan jarri behar diren plan edota egitasmoan parte hartu; larrialdi plana, etab.

Y) Osasun sailak ikuskapenak egin behar dituenean, jakinean jarriko du Bergarako Bihargitza, eta ikuskapenaren ondoren ateratako txostenaren kopia bidaliko dio Bergarako Bihargitzari.

Z) Bergarako Bihargitzak barrualdean pertsonak ibiltzeko ezarrita dituen arauak bete beharko ditu adjudikazio-hartzaileak. Horretarako, adjudikazio hartzaileak, bere interesen arabera, Bergarako Bihargitzari barrualdeko joan-etorrietarako proposamenak aurkeztu ahal izango dizkio. Hala ere, proposamen hauek onartzea edo ez Bergarako Bihargitzaren esku egongo da.

AA) Jarduera hau arautzen duen legedia betetzea, besteak beste, jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren Euskadiko 10/2015 legea, abenduaren 23koa.

AB) Langile berriak hartuko balitu, zerbitzua ematen hasi baino lehen Bergarako Bihargitzaren aurrean egiaztatzea eskatutako euskara maila eta elikagaiak manipulatzeko txartela dutela.

I.F.K.: A - 20 / 656948

3.- BERGARAKO BIHARGITZAREN BETEBEHARRAK.

A) Agorrosin kiroldegia eta berari erantsitako taberna-jatetxearen erabilera baketsua posible egitea.

B) Agorrosingo kiroldegiari erantsita dagoen taberna-jatetxea egoera onean entregatzea, kontratua izenpetzen den egunean.

4.- ZABALDU ETA IXTEKO ORDUAK / EGUNAK.

Zabaldu eta ixteko orduei dagokienean, une bakoitzean indarrean dagoen legeria bete beharko da. Honako hau izango da betebeharreko gutxienezko ordutegia: lanegunetan, 9:00etatik 21:00etara; eta larunbat, igande eta jaiegunetan 10:00etatik 20:00etara. Egutegiari dagokionez, taberna-jatetxea irekita egon beharko da, gutxienez, Agorrosin Ekintza Gunea zabalik dagoen egun guztietan. Adjudikazio-hartzaileak, "B" kartazalean taberna-jatetxearen irekiera eta itxiera ordutegia eta egutegia zehaztuko ditu, eta proposatutako gutxienezkoa hobetu ahal izango du. Egutegi eta ordutegi horiek Bergarako Bihargitzaren baimen idatzia izan beharko dute. Dena den, ordutegia aldatu ahal izango da, une bakoitzean indarrean dagoen legeria errespetatuz, eta aldaketa justifikatzen duen arrazoiren bat tarteko dela, Bergarako Bihargitzak aurrez bere oniritzia emanez gero. Horretarako, dagokion baimen-eskaera aurkeztu beharko du adjudikazio-hartzaileak.

Ohiko ordutegitik kanpo, kirol ekintzaren bat antolatuz gero, taberna-jatetxea irekita eduki beharko du. Horren berri Bergarako Bihargitzak astebete lehenago gutxienez emango dio.

Legionellaren aurkako tratamendua egiten denean, indarrean dagoen legeria betez, taberna-jatetxea itxita egon beharko da, eta enpresa esleipendunak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Hala ere, Bergarako Bihargitza ahalik eta lasterren egiten saiatuko da eta gutxienez astebete lehenago jakinaraziko du.

Taberna-jatetxea irekiko da gutxienez, Agorrosin kirol gunea zabalik dagoen egunetan eta itxi ahal izango da, Agorrosin kirol gunea itxia dagoen egunetan; garbiketa astea, Bergarako jaiak... Egutegian dauden itxiera egunek ez dute ekarriko inongo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik adjudikazio-hartzailearentzat.

5.- BERGARAKO BEHARGINTZAREN ESKUBIDEAK

Egoerak hala eskatzen badu, Behargintza SAk argindar eta ur instalazioan mozketak eta konponketak egin ahal izango ditu, aurrez ahoz abisatuta. Horrek ez dio inolako kalte-ordainerako eskubiderik emango esleipendunari.

6. HIZKUNTZA-KLAUSULA

Kontratazio honek hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidea bete behar du, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuan eta Bergarako Udalbatzarrak 2023-05-22an onartutako euskararen erabilera normalizatzeko planean jasotakoa.

Hori dela-eta, enpresa adjudikazio-hartzaileari honako baldintza hauek betetzea eskatuko zaio:

4.1. Hizkuntzaren erabilerari dagokionez:

- Jendaurrean jarriko diren errotuluak, oharrak edo tabernako bestelako informazioak euskaraz edo, behar balitz, ele bietan (euskaraz eta gaztelaniaz) jarriko dira. Eta ele bietan jartzekotan, euskarari lehentasuna emango zaio, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa erdarazkoaren gainean) eta bai neurriaren aldetik ere. Bestalde, euskarazko testuak zuzen idatziak daudela egiaztatzeko, Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntza eska daiteke.
- Ahozkoari dagokionez, lehen hitza euskaraz egingo da eta ahal den neurrian euskarazko harremanak bultzatuko dira.
- Udalaren eta adjudikazio-hartzailearen arteko harremanak euskaraz izango dira, ahoz zein idatziz.

4.2. Zerbitzua emango duten langileen euskara mailari dagokionez:

- Kontratatutako enpresako langileek Bergarako Udalak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte euskarazko gaitasunei dagokienez. Hori dela-eta, jendaurrean lan egin behar duten pertsonek euskarazko B2 mailaren ahozko gaitasuna ziurtatu beharko dute.

- Jendaurrean lan egiteko proposatzen diren pertsonek euren euskara gaitasuna egiaztatu beharko dute beharrezko agiriak aurkeztuta (kaudimen teknikoan eskatutako dokumentaziorekin batera) edo, halakorik izan ezean, Udaleko Euskara Zerbitzuak jarritako frogak eginda. Eta zerbitzua adjudikatu ondoren pertsona berriren bat hasiko balitz, horrek ere eskatutako euskara maila egiaztatu beharko du.

Eskaintzarik onuragarriena aitortu, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 egun baliodunen barruan, enpresak egiaztatu egin beharko du zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako euskara maila. Lizitatzaileak proposatu dituen pertsonek ez badituzte betetzen atal honetako baldintzak, enpresak zerbitzua emateko beste pertsona batzuk aurkeztu beharko ditu. Azken horiei ere dagozkion probak egingo zaizkie, eta langile horiek ere ez badituzte probak gainditzen, udalak hurrengo enpresari egingo dio errekerimendua.

Aurkeztutako eta onartutako enpresetatik batek ere ez badu egiaztatzen jendaurreko zerbitzua emango duten langileek eskatutako euskara-maila dutenik, adjudikazioa eskaintza onuragarriena aurkeztu duen enpresaren alde egingo da eta bi urteko epea emango zaio euskara-maila egiaztatzeko. Epe hori igarotakoan ez badu maila egiaztatu, Udalak lizitazio berri bat deituko du. Horrenbestez, adjudikazio-hartzaile berriarekin kontratua sinatutakoan, honako plegu honen bidez adjudikazioa lortu duen enpresarekin sinatutako kontratuaren indarraldia bukatu egingo da, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

Udaleko Kirol Zerbitzuak egingo du finkatutako hizkuntza-betekizunen betetzearen jarraipena, beste baldintza guztien jarraipena egiten den moduan, eta behar denean Euskara Zerbitzuaren aholkularitza eskatuko du.

7. BERDINTASUN KLAUSULA

Enpresa esleipendunak, kontratua gauzatzean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko duten neurriak ezarri beharko ditu arlo hauetan guztietan: enpleguaren eskuragarritasunean, langileen sailkapenean, sustapenean, iraunkortasunean, prestakuntzan, ordainsarietan, lanaren kalitatean eta egonkortasunean, lanegunaren iraupen eta antolamenduan, eta, oro har, kontratu honen gauzatzeari lotuta dauden langileei bizimodu pertsonala, familiarra eta lana uztartzen lagunduko dieten alderdi guztietan, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriari buruzkoak xedatzen duena betez.

Hizkuntza ez-sexista erabili beharko du enpresa esleipendunak bere agiri guztietan, publizitatean, irudietan edo kontratua gauzatzeagatik sortzen den material orotan; eta emakumea baztertzen duen irudi oro eta estereotipo sexista oro saihestu beharko du; horrez gain, berdintasun-balioekin, presentzia orekatuarekin, aniztasunarekin, erantzunkidetasunarekin eta genero- eta identitate-pluraltasunarekin lotutako irudia sustatuko du.

Puntuazio osoaren % 5era arte ere baloratuko da protokolo bat aurkeztea edo neurri espezifiko batzuk aurkeztea, laneko sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko, edo kontratu-prestazioaren onuradunen edo erabiltzaileen aurkako sexu-jazarpena prebenitzeko, eta/edo indarkeria matxistako egoerak prebenitzeko.

I.F.K.: A - 20 / 656948

8. INGURUMEN IRIZPIDEA

Adjudikazio-hartzaileak honako neurriak hartu beharko ditu ingurumenaren eragina ahalik eta gehien murrizteko:

- Iturriko ura eskainiko da beti, kontsumitzaileak espresuki ontziratutakoa eskatzen ez badu behintzat.
- Ahal den heinean, elikagaiak garraio-ontzi berrerabilgarrietan (kutxak eta erretiluak) emango dira.
- Zapiak % 100 birziklatutako paperezkoak edo oihalezkoak izango dira. Mahai-zapia oihalezkoa izatea lehenetsiko da.
- Uraren eta energiaren kontsumoa ahalik eta gehien murrizten saiatuko da adjudikazio-hartzailea.
- Adjudikazio-hartzaileak bere elikadura-eskaintzan (ahozkoan zein idatzizkoan) adierazi beharko du zein diren nekazaritza ekologikoko produktuak, zein diren sasoikoak eta zein diren tokiko produktuak. Horniketa egiterako orduan, produktu horiek lehenetsiko dira.
- Zabor kudeaketa selektibo eta arduratsua egin beharko du adjudikazio-hartzaileak. Adjudikazio-hartzaileak erabiliko dituen zabor-poltsek gutxienez % 80 plastiko birziklatukoak eta polietileno edo polipropilenozkoak izan behar dute.
- Garbiketa-lanei dagokienean adjudikazio-hartzaileak honako hauek hartuko ditu kontutan:

    - Garbiketa produktu hauek erabiltzea debekatuta dago:
        - aire-freskagarriak
        - pixatokietarako pastillak edo lurrintzeko substantziak
        - esprai formatuko produktuak
        - desinfektatzaileak edo desinfektatzaileak dituzten produktuak (lixiba, kasu) garbitasun orokorrerako, komunetan eta zehaztutako azaleretan salbu.

    - Lau garbiketa-produktu ohikoenek (erabilera anitzeko garbitzailea, zorua garbitzekoa, beirak garbitzekoa eta zeramikazko gainazalak garbitzekoa) ekoetiketaren baten baldintzak beteko dituzte; adibidez, Europako Etiketa Ekologikoa, Beltxarga Zuria ekoetiketa edo produktuok izan beharreko osagai kimikoak zehazten dituen beste ekoetiketa baliokideren bat.

DILIGENTZIA: Jasota gera dadila Bergarako Agorrosin kiroldegiari erantsitako taberna-jatetxearen alokairua adjudikatzeko baldintza administratibo partikularren plegu hau Bergarako Bihargintza 98 S.A.ren Administrazio Kontseiluak onartutakoa dela 2024ko apirilaren 22an.

Bergaran, 2024ko apirilaren 22an

IDAZKARIA

BERGARAKO BIHARGINTZA 98, S.A.
Garapenerako Udal Elkartea

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS POR EL QUE SE REGULA LA ADJUDICACIÓN EN RÉGIMEN DE ALQUILER DE LA EXPLOTACIÓN DEL BAR RESTAURANTE ANEXO AL POLIDEPORTIVO AGORROSIN DE BERGARA

1.-OBJETO

El objeto de la presente licitación es la adjudicación mediante arrendamiento de la explotación del bar-restaurante anexo al polideportivo Agorrosin de Bergara, propiedad de Bergarako Bihargitza 98, S.A. (en adelante Bergarako Bihargitza).

2.- OBLIGACIONES DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA

A) Mantener en buen estado las instalaciones, útiles y mobiliario cedidos por Bergarako Bihargitza, destinándolos al uso normal concedido. Bihargintza S.L. facilitará el equipamiento necesario, sin que el adjudicatario deba realizar inversión alguna. En caso de precisar información sobre dicho material, les será facilitada por el Servicio de Deportes.

Así, en el momento de suscribir el contrato, y en presencia de la empresa adjudicataria, se realizará un inventario, el cual podrá ser modificado de común acuerdo durante el período de vigencia del arrendamiento.

En el momento en que se extinga el contrato, sea cual fuere la razón de la misma, se realizará un nuevo inventario y, en el supuesto de que ambos inventarios no coincidan, los elementos que falten deberán ser repuestos por la empresa adjudicataria.

B) Realizar por su cuenta todas las reparaciones necesarias para el mantenimiento de los elementos propios del bar-restaurante en el mismo estado en el que se encontraban en el momento de la firma del contrato de arrendamiento. Una vez transcurrido un mes desde la fecha de adjudicación, las reparaciones que vayan apareciendo correrán por cuenta de la empresa adjudicataria, que deberá informar de todas ellas a "Bergarako Bihargitza".

C) Hacerse cargo de todos los impuestos, tasas y tributos que graven las actividades y los medios materiales utilizados para la explotación que constituye el objeto de este concurso.

D) Cuidar del buen comportamiento del público y del personal a su cargo, ofreciendo un servicio adecuado y correcto a las personas usuarias.

E) No arrendar, ceder ni raspasar los derechos y obligaciones inherentes al presente contrato.

F) Abonar los gastos ordinarios generados por la explotación del bar-restaurante (agua, electricidad, teléfono, gas, etc.), así como realizar las revisiones pertinentes conforme a la legislación vigente y abonarlas. A título informativo, se señala que el gasto de electricidad del año 2023 ha sido de 9.151,3 euros (más IVA), y que el suministro eléctrico lo proporciona la misma Bihargitza, gracias al centro de transformación eléctrica del polideportivo.

G) Cumplir las disposiciones legales en materia de protección laboral, así como las de Previsión y Seguridad Social. Bergarako Bihargitza no asumirá responsabilidad ninguna en caso de incumplimiento de dichas normas o de otros incumplimientos en materia

I.F.K.: A - 20 / 656948

laboral en que pudiera incurrir la parte contratista. Cumplir y hacer cumplir a su personal lo establecido en el Plan de Seguridad de Agorrosin y proveer a su personal de los Equipos de Protección Individual legalmente exigidos. El Plan de Seguridad estará disponible en todo momento y Bihargintza S.A. formará al personal adscrito a la ejecución del contrato.

H) En caso de tener intención de realizar cualquier actividad distinta a la de la explotación del bar-restaurante, solicitar autorización para ello a Bergarako Bihargitza. Ante ello, en caso de que Bergarako Bihargitza considere dicha actividad inadecuada o inconveniente, podrá responder negativamente sin tener la parte adjudicataria derecho a indemnización alguna.

I) Mantener en todo momento en buen estado de limpieza, higiene y conservación tanto las instalaciones como el mobiliario y los útiles que se encuentran en ellas. Esta obligación supone, entre otros deberes, efectuar diariamente las limpiezas precisas en las instalaciones, a saber: entrada hall, bar-restaurante (cocina, aseos del bar-restaurante, comedor, almacenes del bar), terraza y escaleras de acceso desde el exterior.

J) Únicamente podrá utilizar los locales del bar-restaurante (comedor, cocina y almacenes) y la terraza exterior, no pudiendo utilizar ni ocupar otros espacios públicos sin el consentimiento por escrito de Bergarako Bihargitza. Para poder organizar algún tipo de actividad extraordinaria deberá contar con la autorización de Bergarako Bihargitza, y para ello deberá presentar la solicitud con al menos 15 días de antelación. Ante ello, en caso de que Bergarako Bihargitza considere dicha actividad inadecuada o inconveniente, podrá responder negativamente sin tener la parte adjudicataria derecho a indemnización ninguna.

K) Responder de los daños causados a terceros (incluido Bergarako Bihargitza y su propiedad) y a bienes como consecuencia directa o indirecta de la actividad de bar-restaurante o de los servicios prestados. Para este fin, deberá contratar una póliza de seguro de responsabilidad civil con una cobertura mínima de 300.000 euros, debiendo presentar anualmente ante Bergarako Bihargitza el documento acreditativo de haber satisfecho la prima del seguro.

L) Para la instalación de aparatos musicales, máquinas tragaperras, futbolín y demás tipos de máquinas de juego deberá obtener autorización de Bergarako Bihargitza, cuya decisión será enteramente discrecional.

M) Poner los materiales necesarios para llevar a cabo la limpieza.

N) Abonar el alquiler mensual dentro de los cinco (5) primeros días hábiles de cada mes, en la forma establecida por Bergarako Bihargitza. Así mismo, deberá abonar a Bergarako Bihargitza la cantidad correspondiente al gasto de electricidad de cada mes antes de la finalización del siguiente, en la forma establecida por Bergarako Bihargitza.

O) En caso de que quien abandone las instalaciones en último lugar sea el personal del bar-restaurante, deberá cerrar las puertas y activar la alarma.

P) Cumplir la legislación vigente y, en consecuencia, entre otras obligaciones, el personal deberá disponer de carné para manipulación de alimentos, si fuera preciso.

Q) No permitir el consumo de tabaco en el bar-restaurante, conforme a Ley 28/2005 de 26 de diciembre, o la que en su caso resulte aplicable.

En caso de que, por incumplimiento de esta u otra ley por la parte adjudicataria, se imponga algún tipo de sanción a Bergarako Bihargitza en su calidad de propietaria de

las instalaciones, el coste de la misma le será imputado a la empresa arrendataria. En este caso, la arrendataria deberá abonar la cantidad exigida por Bergarako Bihargitza en un plazo de un mes, contado a partir del día en que se le haya requerido.

R) El personal que trabaje cara al público deberá estar capacitado para prestar sus servicios en euskara y en castellano. Para ello, quienes trabajen cara al público deberán acreditar el Perfil Lingüístico 2 a nivel oral ante el Servicio Municipal de Euskara. En caso de que entre quienes se presentaran no hubiera nadie que cumpliera dicho requisito, la empresa adjudicataria debería cumplir el plan de euskaldunización convenido con el Servicio Municipal de Euskera.

Además todos los carteles del bar deberán estar redactados al menos en euskera. Para ello, si lo desea puede solicitar la ayuda del Servicio Municipal de Euskera.

S) En temporada de verano (aproximadamente del 15 de junio al 15 de septiembre), deberá controlar el paso existente entre el bar y la piscina recreativa exterior e impedir el acceso de personas usuarias por el mismo.

T) En temporada de verano (aproximadamente del 15 de junio al 15 de septiembre), durante los días en que permanezca abierto el Centro de Actividades Agorrosin, el bar-restaurante deberá ofrecer menús y platos combinados al mediodía y a la noche (es decir, para comer y cenar)

U) No llevar a cabo ninguna reforma en el local o en las instalaciones, sin la autorización previa y por escrito de Bergarako Bihargitza.

V) Desarrollar las actividades propuestas por la empresa adjudicataria en su oferta.

X) Participar en los planes o proyectos que hayan de ser puestos en marcha por Bergarako Bihargitza o el Ayuntamiento de Bergara conforme a la legislación o a acuerdos adoptados por dichas instituciones en relación con el funcionamiento de la instalación de Agorrosin; plan de emergencias, etc.

Y) En caso de que el Departamento de Sanidad vaya a realizar una inspección, informar de ello a Bergarako Bihargitza, y tras la misma remitirle copia del informe elaborado.

Z) La empresa adjudicataria deberá cumplir las normas de tránsito interno de gente establecidas por Bergarako Bihargitza. Para ello, la empresa adjudicataria, en función de sus intereses, podrá realizar propuestas de tránsito interno a Bergarako Bihargitza. Sin embargo, la aprobación o no de dichas propuestas estará en manos de Bergarako Bihargitza.

AA) Cumplir la legislación reguladora de esta actividad, entre otras, la Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas del País Vasco.

AB) En caso de incorporación de nuevos trabajadores, acreditar ante el Ayuntamiento de Bergara, antes del inicio de la prestación del servicio, el nivel de euskera exigido y la posesión del carnet de manipulación de alimentos.

3.- OBLIGACIONES DE BERGARAKO BIHARGITZA.

A) Posibilitar el uso pacífico del polideportivo de Agorrosin y del bar-restaurante anexo al mismo.

B) El día de la firma del contrato, entregar en buen estado el bar-restaurante anexo al polideportivo de Agorrosin.

I.F.K.: A - 20 / 656948

4.- HORAS Y DÍAS DE APERTURA Y CIERRE

Con respecto al horario de apertura y cierre, se deberá cumplir la normativa vigente en cada momento y, como mínimo, el siguiente horario: días laborables, de 9:00 a 21:00; sábados, domingos y festivos, de 10:00 a 20:00.Respecto al calendario, el bar-restaurante deberá abrir, como mínimo, todos los días en los que permanezca abierto el Centro de Actividades de Agorrosin. La empresa adjudicataria concretará en el sobre "B" el calendario y horario de apertura y cierre del bar-restaurante, pudiendo mejorar el mínimo propuesto. Estos calendarios y horarios deberán contar con la autorización por escrito de Bergarako Bihargitza. De cualquier forma, el horario podrá ser modificado, siempre y cuando exista una razón que justifique tal cambio, respetando la legislación vigente y con la autorización previa de Bergarako Bihargitza. Para ello, la parte adjudicataria deberá presentar la correspondiente solicitud de autorización.

En caso de organizarse alguna actividad deportiva fuera del horario habitual, el bar-restaurante deberá permanecer abierto. Bergarako Bihargitza anunciará dicha eventualidad al menos con una semana de antelación.

Cuando se realice un tratamiento anti-legionella, en cumplimiento de la legislación vigente, el bar-restaurante deberá permanecer cerrado, sin que la empresa adjudicataria tenga derecho a recibir ningún tipo de indemnización. De todos modos, Bergarako Bihargitza tratará de realizarlo lo antes posible y de comunicarlo al menos con una semana de antelación.

Se abrirá al menos el bar-restaurante, los días que esté abierto el centro deportivo de Agorrosin y se podrá cerrar, los días que esté cerrado el complejo deportivo de Agorrosin: la semana de limpieza, las fiestas de Bergara... Los días de cierre incluidos en el calendario no darán derecho a indemnización alguna para el adjudicatario.

5.- DERECHOS DE LA BEHARGINTZA DE BERGARA

Si la situación lo requiere, Behargintza S.A podrá realizar cortes y reparaciones en la instalación de electricidad y agua, previo aviso verbal. Ello no dará derecho a indemnización alguna para el adjudicatario.

6. CLÁUSULAS LINGÜÍSTICAS

Esta contratación se halla sujeta al régimen de doble oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6° y regulado por la Ley Básica 10/1982, de 24 de noviembre, de Normalización del Uso del Euskera, así como por la normativa que la desarrolla, entre otros el Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, y lo establecido en el Plan para la normalización del uso del euskera que fue aprobado por el Pleno Municipal del Ayuntamiento de Bergara el 22-05-2023.

Por ello, se requerirá a la empresa adjudicataria el cumplimiento de los siguientes requisitos:

6.1. Respecto al uso de la lengua:

- Los rótulos, avisos u otras informaciones referentes al bar que se expongan al público se colocarán en euskera o, si fuera preciso, en bilingüe (euskera y castellano). En este último caso, se dará preferencia al euskera, tanto por

ubicación (el texto en euskera encima del de castellano), como por tamaño. Asimismo, a fin de garantizar la corrección lingüística de los textos en euskera, se puede solicitar la colaboración del Servicio Municipal de Euskera.

- En cuanto al aspecto oral, la primera palabra se dirá en euskera y en la medida de lo posible se favorecerán las relaciones en euskera.
- Las relaciones entre el ayuntamiento y la empresa adjudicataria serán en euskera, tanto oralmente como por escrito.

6.2. Respecto al nivel de euskera del personal que vaya a prestar el servicio:

- El personal de la empresa deberá garantizar, en lo que a su competencia lingüística en euskera se refiere, unas condiciones similares a las que sean exigibles al Ayuntamiento de Bergara. Por ello, las personas que vayan a trabajar cara al público deberán acreditar la competencia oral del nivel B2 de euskera.
- Las personas propuestas para trabajar de cara al público deberán acreditar su capacidad lingüística en euskera mediante la presentación de los documentos precisos (junto con la documentación requerida en solvencia técnica) o, en caso contrario, sometiéndose a las pruebas que establezca el Servicio Municipal de Euskera. Y si una vez adjudicado el servicio se incorpora alguna nueva persona a este trabajo, ésta también deberá acreditar el nivel de euskera exigido.

Una vez declarada la oferta más ventajosa, en el plazo de 10 días hábiles a partir del día siguiente al de su notificación, la empresa deberá acreditar que las personas que prestarán el servicio cuentan con el nivel de euskera requerido. En caso de que las personas propuestas por la licitadora no cumplan los requisitos de este apartado, la empresa deberá presentar a otras personas para la prestación del servicio, A estas personas también se les realizarán las correspondientes pruebas y si tampoco superan las mismas, el ayuntamiento realizará el requerimiento a la siguiente empresa.

En caso de que ninguna de las empresas presentadas y admitidas acredite que el personal que vaya a prestar el servicio cara al público tiene el conocimiento de euskera exigido, la adjudicación se realizara a la empresa que haya presentado la oferta más ventajosa y se le otorgará un plazo de dos años para acreditar dicho nivel de euskera. Si transcurrido dicho plazo no se ha acreditado el nivel, el ayuntamiento convocará una nueva licitación. Por tanto, cuando se suscriba el contrato con la nueva empresa adjudicataria, finalizará la vigencia del contrato suscrito con la empresa a la que se le haya realizado la adjudicación conforme a este pliego, sin derecho a percibir indemnización alguna.

El Servicio Municipal de Deportes realizará el seguimiento del cumplimiento de los requisitos lingüísticos establecidos, tal y como lo hace con todos los demás requisitos, y solicitará, en su caso, el asesoramiento del Servicio Municipal de Euskera.

7. CLÁUSULA DE IGUALDAD

La empresa adjudicataria, en la ejecución del contrato, deberá establecer medidas que garanticen la igualdad de mujeres y hombres en el acceso al empleo, clasificación personal, promoción, permanencia, formación, retribuciones, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada, así como aquellas que favorezcan la conciliación de la vida personal, familiar y laboral del personal adscrito a la ejecución del

I.F.K.: A - 20 / 656948

contrato, conforme establece la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

La empresa adjudicataria deberá utilizar un lenguaje no sexista en toda su documentación, publicidad, imagen o material que se genere con motivo de la ejecución del contrato, y deberá evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de género e identidad.

Se valorará hasta el 5 % de la puntuación total la presentación de un protocolo o medidas específicas para prevenir y hacer frente al acoso sexual y al acoso por razón de sexo en el trabajo, o para prevenir el acoso sexual contra las personas beneficiarias o usuarias de la prestación contractual; y/o para prevenir las situaciones de violencia machista.

8. CRITERIO MEDIOAMBIENTAL

La adjudicataria deberá adoptar las siguientes medidas para minimizar en todo lo posible el impacto ambiental:

- Se ofrecerá siempre agua del grifo, salvo que la persona consumidora solicite expresamente agua envasada.
- En la medida de lo posible, los alimentos se suministrarán en recipientes de transporte reutilizables (cajas y bandejas).
- Las servilletas serán de tela o de papel 100% reciclados. Se priorizará que el mantel sea de tela.
- La adjudicataria procurará reducir al mínimo el consumo de agua y energía.
- La adjudicataria deberá indicar en su oferta de alimentación, tanto oral como escrita, los productos de agricultura ecológica, de temporada y locales. A la hora de realizar el suministro, se priorizarán dichos productos.
- La adjudicataria deberá realizar una gestión selectiva y responsable de los residuos. Las bolsas de basura que utilice la adjudicataria deberán ser al menos en un 80% de plástico reciclado y polietileno o polipropileno.
- En cuanto a las labores de limpieza, la adjudicataria tendrá en cuenta que:
    - Está prohibida la utilización de estos productos de limpieza:
        - ambientadores
        - pastillas o sustancias aromatizantes para los urinarios
        - productos en formato spray
        - productos desinfectantes o que contengan desinfectantes (como la lejía) para la limpieza general, excepto en aseos y determinadas superficies.
    - Los cuatro productos de limpieza más habituales (limpiador multiusos, limpiasuelos, limpiacristales y limpiador de superficies cerámicas) cumplirán las condiciones de alguna ecoetiqueta; por ejemplo, la Etiqueta Ecológica Europea, la ecoetiqueta Cisne Blanco u otra ecoetiqueta

equivalente que especifique los componentes químicos que deben contener estos productos.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente pliego de cláusulas administrativas particulares para la adjudicación del alquiler del bar-restaurante anexo al polideportivo Agorrosin de Bergara ha sido aprobado por el Consejo de Administración de Bihargintza 98 S.A. de Bergara el 22 de abril de 2024.

En Bergara, a 22 de abril de 2024

IDAZKARIA

I.F.K.: A - 20 / 656948